

NOS MUEVE
BILBAO
BAT EGINIK



JUAN MARI ABURTO RIKE
BILBOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

HAUTESKUNDE PROGRAMA
BILBO 2019-2023

EAJ-PNV.EUS



juanmariaburto.eus



ejaj
pnv

9. BILBO EUSKALDUNA

Euskara gure nortasunaren ezaugarri nagusietakoa da. Euskarak jatorriekin lotu eta nor garen adierazteaz gain, kokapen berezia ematen digu berezko izaeraren eta aukera globaletara irekitzearen arteko oreka aurkitzea funtsezkoa bihurtu den mundu globalizatu honetan. Testuinguru honetan, hiriak nahitaezko eremuak gara euskararen erabilera bultzatzeko eta euskaldunak aktibatzen.

Azken 4 urteotan, “Euskararen Aholku Batzordea” sortu eta modu aktiboan lan egin dugu euskara sustatzeko hainbat ekimen bultzatuz, bereziki umeen eta gazteen artean; hala nola, “Ikusi eta ikasi”, “Harrapazank” eta “Galdeketaun” programak. Azken inkesta ofizialen arabera, euskalduntze prozesuak aurrera egin du etengabe, eta azken 25 urteotan % 32tik % 49ra igaro gara euskaldunen portzentajeari dagokionez, % 86ra ere iritsiz 30 urtetik beherako gazteen kasuan.

Euskararen arloan, 2 erronka handi planteatu ditugu Bilbon datozen 4 urteetarako. Lehenengo erronka **euskararen erabilera soziala gehitzea** da. Euskarak presentzia handiagoa izan behar du kulturaren, kirolean, eskolan, unibertsitatean, saltokietan, enpresetan eta hiriko kaleetan. Eta bigarren erronka, **Udalaren barruan euskara komunikazio-hizkuntza bezala erabil dadila** bultzatzea da.

9. BILBO EUSKALDUNA

9.1- EUSKARA HIRIAN

HELBURUA

Euskararen erabilera soziala indartzea eta, Udalaren lidergotik abiatuta, hiriko eragile sozial, kultural eta ekonomikoekin modu koordinatuan lan egitea.

NEURRIAK

1. “Bilboko VI. Euskara Plana” garatzea.
2. Euskara sustatzen duten tokiko eragileekiko koordinazioa, lidergoa hartuz.
3. “Euskararen Aholku Batzordea” indartzea.
4. Euskara saltokietan sustatzeko kanpaina.
5. Auzoetan euskara sustatzeko kanpainak.
6. Eskola-kirolean eta udal kiroldegietan euskararen erabilera sustatzeko kanpaina.
7. Bilboko Euskaltegietan matrikulazioa sustatzeko kanpaina.
8. Euskararen aldeko gizarte, erakunde zein parte-hartze bidezko ekimenetan modu aktiboan parte hartzea.
9. Euskarazko kultur adierazpideak (antzerkia, musika, literatura,...) sustatzea.

9.2- EUSKARA UDALETXEAN

HELBURUA

Euskararen erabilera bultzatzea Udalaren barruko komunikazio-hizkuntza bezala.

NEURRIAK

1. Udal erakunde guztietan “Euskara Planak” lantzen hastea.
2. Udal zerbitzuek erabiltzen dituzten app, webgune eta tresna teknologikoetan euskararen erabilera bultzatzea.
3. “Zinegotziek lehen hitza euskaraz” konpromisoa.
4. Udala tarteko dituen argitalpen eta ekitaldietan euskarak presentzia handiagoa izatearen aldeko konpromisoa.
5. Jendeari arreta ematen dioten langile publikoak euskalduntzeko lanekin jarraitzea.

NOS MUEVE
BILBAO
BAT EGINIK